

“Jar zaituz abian beste ekonomia baten alde: gizarte ekonomia eta solidarioa”



JAR ZAITEZ ABIAN
BESTE EKONOMIA
BATEN ALDE

GIZARTE EKONOMIA
ETA SOLIDARIOA

Zein da proiektu honen helburua?

Gazteak gizartean eta lan-merkatuan errazago sartzea du helburu eta, horretarako, GESren eremuan gizarte ekintzailtza sustatu nahi du.

Ildo horri jarraiki, “Jar zaituz abian beste ekonomia baten alde: gizarte ekonomia eta solidarioa” egitasmoak prestakuntza tresnen bidez eta gizarte ekintzailtzarako egiazko esperientziak ezagutuz gazteak burujabetzea eta gaitzea proposatzen du. Hala, pertsona partaideek, batetik, gaitasunak hobetu eta, bestetik, gizartean eta lan-merkatuan sartzea sendotuko dute. Onuradunekin batera, estatuko lurralde desberdinetan erkidego-ingurunearen garapenari lotutako gizarte-ekintzailtzaren proiektuak antzematen eta gauzatzen jardungo dute.

Zergatik Gizarte Ekonomia eta Solidarioa?

Gizarte-ekonomia garapen iraunkorraren eredu ekonomikoarekin konprometituta dago eta 2017. urteko datuen arabera, Euskadin 74.696 langile ditu, hau da, EAEko enpleguaren % 8,9 inguru. Izan ere, sektorea goraka doa eta ekonomiaren adar askotan ageri da. Azkeneko hamarkadan bere fakturazioa bikoiztu baino gehiago egin da eta ohiko ekonomiatik urrun dauden beste koordinatu batzuk erabili ditu. Gizarte-ekonomiak enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzen du. Horri eutsiz, gutxi gorabehera kontratuen % 80 mugagabea da. Gainera, biztanle gazteetan kontzentratzen da, hots, enpleguen ia % 50 40 urtetik beherakoena da. Laburbilduz, sektore honetan gizarte- eta ekologia-ingurunearekin egonkortasuna, zuzentasuna, elkartasuna eta erantzukizuna bere jardueraren bihotzean kokatzen dira.

Norentzat da?

16 eta 30 urte bitarteko pertsona gazte guztientzat da, beren lurraldeetan bestelako ekonomia-mota abian jarri nahi dute. Horretarako, Madril, Andaluzia, Euskadi, Kantabria, Valentzia, Aragoi, Gaztela eta Leon nahiz Gaztela-Mantxan izan beharko dute bizilekua. Bereziki, Lanbide Heziketako Gradu (oinarrizko LH, gradu ertaina eta goi mailakoa), Batxilergo eta Unibertsitate Graduak dituzten ikasleei begira antolatuta dago.

Nola antolatuko da “Jar zaituz abian beste ekonomia baten alde: gizarte-ekonomia eta solidarioa”?3 fasetan egituratuko da:

1. fasea: online prestakuntza

Online ikastaroa egingo da eta gizarte-ekonomia nahiz ekonomia solidarioaren eremuan pertsona gazteak trebatzea du helburu. Horrez gain, gizartean eta lan-merkatuan sartzeko ekonomiak proposatzen dituen tresnak aditzera eman nahi dira.

Ikastaroak bi edizio izango ditu hurrengo datatan:

- 2018/12/03tik 2019/01/22ra
- 2019/02/25etik 2019/04/01era

Online prestakuntzan lau modulu aurkituko dira:

- M.1. GESren teoria eta historia.
- M.2. Forma juridikoak eta GESren printzipioetan gaitzea.
- M.3. Proiektuen garapena: ideia potentzialak, bideragarritasun kualitatiboa, bideragarritasun ekonomikoa, ingurumen-iraunkortasuna aztertzea eta taldeko adibide baten garatzea.
- M.4. Enplegarritasuna hobetzeko tresna bereziak.

Modulu bakoitzean eztabaidarako guneak eta ikus-entzunezkoen materialak garatuko dira.

Prestakuntza amaitutakoan, azken proiektua egingo da, hau da, gizarte ekintzailtzako ekimen berriztatzailea garatuko da, bizilekuko lurraldean gauzatu ahal izateko. Inplementatzeko orduan potentzialtasun handiena duten proiektuak hautatuko dira eta aukeratutako pertsonen ekintzailtzari buruz prestakuntza bereziak jasoko dituzte beren proiektuak abian jartzeko. Fase hau estatuko jardunaldiarekin (*) amaituko da eta ikasleek beren proiektuak aurkeztuko dituzte. Aldi berean,

esperientzia berriztatzaileen inguruko mintegia antolatuko da eta GESren lan lerro desberdinetan adituak egongo dira bertan.

Estatuko jardunaldian parte hartzeko online prestakuntza gainditu behar da.

Online formakuntza egin nahi baduzu, [izena eman hemen](#).

Nola gainditzen da online prestakuntza?

- Eztabaida-guneetan parte hartuta.
- Moduluetan eskatutako lanak entregatuta.
- Erkidegoan eragin positiboa duen proiektu berriztatzailea entregatu behar da.

(*) Zer da estatuko jardunaldia?

Estatuko jardunaldia online prestakuntzaren bi edizioak amaitutakoan egingo da eta ikasleen proiektuak aurkeztuko dira.

Halaber, parte hartzen duten pertsonak GESren esperientzia berriztatzaileei buruzko mintegian parte hartzeko aukera izango dute. Horretan gizarte-ekonomia nahiz ekonomia solidarioko sektore eta gai ezberdinetako pertsona adituak bilduko dira.

Jardunaldia Madrilen egingo da, plaza-kopuru mugatua izango du eta hautespen-irizpideak online prestakuntzaren moodle plataforman jakinaraziko dira.

2. fasea: gizarte-ekonomia eta solidarioko erakundeetan egonaldiak eta bisitak.

Fase honen helburua da partaideek GESn garatzen diren erakundeak nolakoak diren ezagut ditzaten eta horietan zehar ibilbidea egin dezaten. Beraz, honakoak zuzenean ezagutuko dituzte: esperientzia desberdinak, proiektuak abian jartzeko ibilbidea, erronkak eta oztopoak. “Jar zaitez abian beste ekonomia baten alde” proiektuko partaideek lurralde ezberdinetan GESren feriak antolatzen esku hartzeko aukera izango dute.

3. fasea: Hackathon

Ekitaldi irekia burutuko da eta lurraldeari lotutako arazo ekosozialak nola ebatzi jakin nahi duten pertsonak parte hartuko dute. Xede horrez, GESren erakundeak edo gizarte berrikuntzako proiektuak eratuko dira. 24 ordu iraungo ditu eta GESren sektorean adituek dinamizatuko dute.

Argibide gehiago nahi izanez gero: ess.formacion@ecosfron.org

Proiektuaren antolatzailea:



Con la colaboración de:



Proiektuaren finantzazio-iturria:

Obra Social "la Caixa"